

MUTRIKUKO ESKOLA KIROLEKO OHARRA

ESKOLA KIROLEKO GURASOENTZAKO OHARRA:

Mezu honen bitartez, jakinarazi nahi dizuegu, Kirol Eskolatako zerrendak Eskola Kiroleko zerrendekin konparatu ostean, ezinbestean, eta Aldundiak lurralde mailan ezartzen duen legediari jarraituz, Eskola Kiroleko taldeak berkonponsatu eta Kirol Eskolatan izena emanda dauden ume guzti guztiak Eskola Kiroleko asteburuko taldeetan sartu behar ditugula. Hori egin ezean, Kirol Eskolatan (Escuelas Deportivas. Adib.: zesta, futbola...) dauden umeek ezingo lukete, beti ere aukerazko egiturak diren hauetan parte hartu.

Eskola Kiroleko ume guztien zerrendak kontutan hartuz, asteburuetako talde berriak osatuko dira eta zuen ikastetxeko informazio gunean egongo dira ikusgai datozen egunetan.

Hortaz, gaurtik hasi eta astebeteko epean, gurasoren batek inolako zalantzarik izango balu, mesedez jarri zuen ikastetxeetako guraso elkarteko eskola kiroleko arduradunarekin zuzenean harremanetan edo idatzi mutrikukoeskolakirola@gmail.com helbidera.

Asteburu honetan ez da jardunaldirik egongo eta hurrengo prestatu bezain pronto, jakinaraziko zaizue.

Besterik gabe, mila esker zuen arretagaitik.

